



**Hiztegitxoa**

**Hobeto irakurtzen laguntzeko**



<b>adierazkor</b> modu espresiboan	Begiak batera eta bestera <b>adierazkor</b> mugituz mintzo zen.	12
<b>afera</b> kontua, asuntoa, arazoa	Bigarrena, berriz, kontrabandista itxurako pirata bihurria zen, legez kanpoko <b>afera</b> k manejatzen artista.	32
<b>ahantzura</b> ahaztea, ez oroitzea	...eta lehen garaipen hura <b>ahantzuraren</b> putzuan estalita geratu da.	8
<b>airatu</b> hegaldatu, aienatu	...esaldi rokanbolesko honen ostean, presoak <b>airatzeko</b> planaren nondik norakoak azaltzen zituen berripaperak.	50
<b>aizto</b> ganibeta, kutxiloa	Falta zitzaizkigun gauza batzuk lortu ostean (igeltsu zaku bat, irrati bat, <b>aiztoak</b> , manta gehiago eta fruta), dena prest dago.	87
<b>akaso</b> beharbada, agian	<b>Akaso</b> , barran periodikoa irakurtzen zuen lunetaduna zen.	99
<b>aldamio</b> eraikitzekeo egitura, euskarria	Ohea eskailera moduan erabili eta takilla haren gainean jarrita osatu du bere <b>aldamio</b> partikularra...	26
<b>aldendu</b> urrundu	...Basauritik <b>aldendu</b> zituzten bostak.	98
<b>alta</b> hala ere	<b>Alta</b> , beste ihesaldi batzuk bilakatu dira mitiko belaunaldi berrientzat...	10
<b>ametitu</b> onartu	Baina poliziarentzat zaila zen sinesten. Ezin zuten <b>ametitu</b> helburua ezkuturik gabeko eskuzabaltasun hura.	82
<b>amildu</b> altutik erori, jausi	...lurraren kontra <b>amildu</b> da sei metrotik.	28
<b>amultsu</b> maitekero	“Gabon, semeok, zer berri orduotan?” –zabaldurien atea <b>amultsu</b> , bere pipa ahoan.	37
<b>animalia</b> itzela, handia	...zentzu guztiak daukazu erne, tentsio <b>animalian</b> ...	106
<b>anitz</b> asko	Oker ez banago, preso politiko <b>anitz</b> zineten garai hartan Segoviako kartzelan...	41
<b>antza</b> itxuraz	Eta, <b>antza</b> , hain urduri nengoen, beti begira gelditzen zitzaizkidala.	80
<b>apez</b> abadea, elizgizona	...ahoaan bilorik gabe erakutsi ohi zituen sermoietan bere ideia abertzaleak, Zalgizeko <b>apeza</b> zèn Roger Idiarrek bezala.	36
<b>apezetxe</b> seminarioa	ETA V.ak Montoriko apezetxean preso daukan Eugen Beihl alemaniar kontsulak ihes egitea lortzen du.	133
<b>arakatu</b> miatu, ikertu	Kartzelako beste txoko guztiak milimetroz milimetro <b>arakatu</b> ditut eta ez dut topatu inon bospasei lagun ezkutatu eta lurra gordetzeko moduko lekurik.	86
<b>arbatsu</b> zarpaila	...kontatu dit irribarre erdiz, eskuak bere ile <b>arbatsura</b> eramaten dituen bitartean.	78
<b>arrabizitzen</b> berriz bizi, berritu	Irri urduri bat irristatzen zitzaion gogoratu ahala, itxaronaldia <b>arrabizitzen</b> balego bezala.	104
<b>arrotz</b> estrainioa, ezohizkoa	Eremu <b>arrotzean</b> , elkarren babesle eta lagun bakarrak dira.	24
<b>asilo</b> babesa	<b>Asilo</b> politikoa eskatzera Parisera joateko gomendatu ziguten.	46
<b>atributu</b> ezaugarria	Arrazionalki, legalki eta <b>atributu</b> guztiekin, baina aldi berean tirania itzela da.	111
<b>atzeman</b> harrapatu (aurkitu)	Urte beren, bi zulo <b>atzemango</b> dituzte kartzela honetan.	136
<b>aurrekari</b> aurretik gertatua	Ez zen erraza izango, noski. <b>Aurrekariak</b> ikusita, funtzionarioak adi egongo ziren...	43



<b>bahitzaile</b> norbait harrapatu eta eramaten d	Beihlek pentsatu zuen, jendarmeria eraman aurretik, <b>bahitzaileak</b> non ziren jakin nahi zutela montoriarrek.	36
<b>baritono</b> ahots erregistro berezia	Harritu egiten nau Baigorriko <b>baritonoak</b> ze lasaitasunarekin kontaktzen dituen gauzok.	67
<b>barrenak hustu</b> sabelustu (txiza eta kaka egin)	Ateratako lur guztia baldeetan igotzen dugu ganbarara, eta han fondoko gelatxoetan pilatzen dugu, <b>barrenak husteko</b> erabiltzen dugun tokian.	93
<b>bataiatu</b> izendatu	ETako presoek “Braulio” izenez <b>bataiatu</b> zuten zuloa deskubritu da.	138
<b>begi-alai</b> begirada bizikoa	Itzuli eta gizon burusoil <b>begi-alai</b> bat topatu nuen aurrez aurre.	101
<b>besta</b> jaia	Noski, tabernan <b>besta</b> egiten ari ziren montoriarrek ez zuten deskilibratu itxurako zahar hura telebistan...	35
<b>bihotzaren zolatik</b> bihotz-bihotzetik	Atera zitzaion haietako bati, <b>bihotzaren zolatik</b> .	36
<b>bolondres</b> boluntarioa	Iparralde osotik joaten ziren <b>bolondresak</b> : arotz, igeltsero, iturgin... montoriarrei laguntzera	34
<b>borborka</b> sutan, irakiten	Adrenalina <b>borborka</b> daukazu eta ekilibrista sentitzen zara, hari baten gainean zintzilik.	67
<b>bortxa</b> indarkeria, biolentzia	<b>Bortxaz</b> , legalitatez edo oso arrazionalki, askatasuna murriztuta dago edonon.	112
<b>burkide</b> kamarada, taldekidea	Isasa larriki zauritu zuten, ene <b>burkide</b> Ramon Llorcak bala bat jaso zuen buruan...	45
<b>burrunba</b> zaratotsa	<b>Burrunba</b> erraldoi bat zen, zerua gainera etorriko balitzaizu bezala...	16
<b>deliberatu</b> erabaki	Bada, zuzendariarekin beti egongo zena neu izatea <b>deliberatu</b> genuen.	68
<b>desastre</b> hondamena	Azken egunak <b>desastre</b> huts izan dira, eta atzo jaitsi ginenean dena amilduta zegoen tunelean.	94
<b>desenkusatu</b> ezina adierazi, zuritu	Esaldi bakarra idatzi zidan, <b>desenkusatzeko</b> .	99
<b>deskalabratu</b> trakets antolatua	Edo 1990eko ekintza hura ez zela hain <b>deskalabratua</b> .	54
<b>desolazio</b> bihozmina	Sentitzen dugun penaz eta <b>desolazioaz</b> haratago...	95
<b>despistatuta</b> oharkabea, arreta gabe	Bi teila altxatu eta, kartzeleroa <b>despistatuta</b> zegoela aprobeztatuz, laranja azal batzuk botatzen ditut patiora.	92
<b>deus</b> ezer	...tresneria guztia kontatu eta <b>deus</b> ez dela falta egiaztatzen dute.	92
<b>diskrezioz</b> nabarmendu gabe	..balizko ondorio judizialeatik bere burua babesteko, <b>diskrezioz</b> jokatu nahi duena.	55
<b>dispertsio</b> sakabanaketa	Alta, <b>dispertsio</b> politikarengatik, De Juana Sevillara trasladatu zuten bat-batean.	51
<b>egiazki</b> errealitatean, benetan	Batzuek esan arren halako egunean edo halako lekuan ikusi dutela, <b>egiazki</b> ez da existitzen	102
<b>egonezin</b> urduritasuna	... <b>egonezina</b> biderkatu egiten da. Sarrik, agian, gauzak bestela bizi izango zituela pentsatu nuen...	104
<b>egoskor</b> setatia, burugogorra	...haur <b>egoskor</b> bati buruz mintzatzen ari balitz bezala.	69
<b>ekintzailetasun</b> ekimenerako jarrera	...inkonformismoa, <b>ekintzailetasunaren</b> garrantzia, xake-jokalariaren talentua, arriskatzearen gazi-goza eta, batez ere, bizitzeko gogo eutsiezina.	7



<b>elbarri</b> ezindua, lohadarrak baliogabetut	<b>Elbarri</b> geratuko dela pasatzen zaio burutik.	28
<b>enpiriko</b> zentzumenen bidezkoa	Amets utopikoena ere egikaritu daitekeela aldarrikatzen duten hamaika froga <b>enpiriko</b> .	8
<b>erbeste</b> atzerria	Kide garrantzitsu anitz <b>erbestean</b> edo kartzelan izanik, ETA erabat ahulduta zegoen	32
<b>erne</b> adi , arretatsu	...zentzu guztiak dauzkazu <b>erne</b> , tentsio animalian...	106
<b>erne</b> sortu	...ikastolak perretxikoak bezala <b>ernetzen</b> ziren...	31
<b>erorarazi</b> jaustea ekarri	Txibatazo batek beste zulo bat <b>erorarazten</b> du Soriako kartzelan...	136
<b>erredentzio</b> zigorra arintzea	Baina epaitu eta <b>erredentzio</b> guztiak kendu dizkiote.	30
<b>errefusatu</b> uko egin, ezetz esan	Gainera, kontuan hartu behar da sasoi hartan anarkista batzuek <b>errefusatu</b> egiten zutela “preso politiko” izaera...	44
<b>erresumindu</b> erremina, amorratua	...beste batzuk, ostera, menpeko eta <b>erresuminduak</b> dira kanpora irten eta gero ere, inongo herriren autodeterminazioari ezer aportatzeko gauza ez direnak...	113
<b>erreten</b> ubide txikia, kanala	Edozein <b>erreten</b> da egokia, kaleraino iristeko balio badu.	49
<b>eskapi</b> ihes (hitz jokoa)	<i>Arrano beltza urduri, gaiaz leihotik <b>eskapi</b>.</i>	38
<b>eskuburdin</b> burdin lokarriak ( <i>esposas</i> )	...bere paperean ondo sartuta, ea zeri barre egiten zion esanez, eta <b>eskuburdinak</b> jarri zizkion.	71
<b>espetxe</b> kartzela, presondegia	Piti heltzearekin batera, bestalde, bi edo hiru lagun beste <b>espetxe</b> batzuetara eraman zituzten trasladoa.	103
<b>estolda</b> isurbidea, lurpeko kanaltxoa	Kartzeleroek, preso politikoon patioko <b>estolda</b> batean hasitako hiru metroko zuloa aurkitu dute.	85
<b>etsenplu</b> eredua, adibidea	Militante esanguratsuenetako asko atxilotu eta, <b>etsenplua</b> emateko intentzioarekin, aspaldiko epaiketa handiena muntatu zuen haien kontra.	31
<b>ez-leku</b> balio ez duen leku galdua	Usain, ezerezaren erdian edo <b>ez-lekuetan</b> egoten dira kartzelak...	24
<b>ezerez</b> hutsa	Usain, <b>ezerezaren</b> erdian edo ez-lekuetan egoten dira kartzelak...	24
<b>fugitibo</b> iheslaria	...galdetu diot ea sasian egonik eta polizia gehien bilatzen zuen <b>fugitiboa</b> izanik...	68
<b>gaitzetsi</b> errefusatua	Baziren eskala sozialetik kanpo gelditzen ziren baztertu eta <b>gaitzetsiak</b> ere...	11
<b>ganibet</b> labana	Eskuak luzatuta hasi da lanean, <b>ganibet</b> suitzar bateko tresna guztiak erabiliz.	26
<b>garbitu</b> hil, akabatu, kalitu	Guardia zibil bat <b>garbitzea</b> leporatzen ziguten, eta heriotza zigorra jasoko genuela aipatzen zen.	40
<b>garita</b> begiralekutxoa, zaintzarako	Autopistako argiek bete-betean jotzen naute, eta guardia zibilen bi <b>garitetatik</b> ikusgai nago.	88
<b>giltzapetu</b> atxilotu	Bitartean, berme bezala, kazetarien kameramana <b>giltzapetu</b> zuen Anaitasuna Hotelean...	37
<b>habe</b> zutabea, postea	Burdinazko gako handi bat egin eta, kablearekin, <b>habe</b> batean lotu du.	27
<b>hanka egin</b> ihes egin, ospa egin	Minutu batzuk han zain egon ostean, oinez <b>hanka egitea</b> erabaki nuen.	19



<b>hara-hona</b> alde batetik bestera	Begiak hara-hona mugituz, lehen aldiz aske gelditu zen une gogoratu du.	83
<b>harlauza</b> baldosa, harri zapala	Horman zulo bat egin zuten eta, tapatzeko, kolore eta tamaina bereko <b>harlauza</b> bat fabrikatu.	42
<b>harrabots</b> zalaparta, astrapala, zarata handi	Goizeko hamaikak aldera, <b>harrabots</b> trumoitsu batek esnatzen gaitu.	95
<b>hegira</b> hegala, bazterra	<i>Banintu ni hegala joan nindaike berehala zure leiho <b>hegira</b>.</i>	49
<b>herren</b> maingua, kamutsa	Hitz gutxikoa zen, baina, ahoa zabalduz gero, ez zuen esaldi <b>herrenik</b> ebakitzen.	8
<b>herrenka</b> oina arrastaka	<b>Herrenka</b> sartu zen atetik, Sevillako espetxean kartzeleroek emandako jipoi baten ondorioz.	23
<b>hitzartu</b> adostu,	Alta, <b>hitzartutako</b> eguna heltzear dago.	134
<b>hodeiertza</b> ortzi-muga, horizontea	Kartzelak presoari ikusten uzten dion <b>hodeiertza</b> motza bada, gure Estatuak ematen diotena herriko jendeari...	111
<b>hoditeria</b> tutu sistema	Kartzelako <b>hoditeria</b> sistemaren barnean.	42
<b>honezkero</b> jadanik, dagoeneko	Hala ere, ondo goaz. Tunelak sei metro dauzka <b>honezkero</b> .	94
<b>hornigai</b> probisioa	Otorduak, <b>hornigaiek</b> irauñ duten bitartean, antzekoak dira beti.	90
<b>iduriz</b> antza, agi denez	Plana ez zen burutu, azken momentuan Igor Solanak atzera egin zuelako, <b>iduriz</b> , bere neska-laguna haurduñ zegoela jakitean.	53
<b>ildo</b> lerroa	...eta guk <b>ildo</b> gogor bat sortu genuen hasieratik; haiekin hitzik ez genuen gurutzatzen.	11
<b>ilea urdinu</b> ile zuriz bete	Horixe da bere errutina, urteek <b>ilea urdintzen</b> dioten bitartean.	23
<b>inarrosi</b> astindu	Kontsularen bahiketaren notiziak bazterrak <b>inarrosi</b> zituen.	33
<b>inmundo</b> oso zikina, satsua	Lewis Carrolen eleberrikoa bezala: zikina zen, iluna, higuin garria, <b>inmundoa</b> .	79
<b>ipurtargi</b> intsektu argiduna ( <i>luciernaga</i> )	Eta bitartean, <b>ipurtargi</b> armada sendotu ahala, etsaiaren erantzunak gogor zihoazen.	63
<b>iragarri</b> anuntziatu, albistea zabaldu	<i>El Pais</i> egunkariak letra larriz <b>iragarri</b> zuen berria.	50
<b>itzulikatu</b> azpikoz gora ipini	Kafe kikara <b>itzulikatu</b> zuen.	105
<b>ixkin egin</b> saihestu, ekidin	Egiazki zainetan zen, eta denbora guztian <b>guri ixkin</b> nola <b>egin</b> pentsatzen zebilen.	67
<b>jalgi</b> atera, irten, ilki	Kalera <b>jalgi</b> eta berehala, Filipe eta biak auto batean sartu ziren. Zuzendaria batera eta bestera begiratuz zioan, laguntza eskatuz bezala.	69
<b>jendarme</b> polizia frantsesa	Iparretarrak-eko hamar kide <b>jendarmez</b> mozorrotuta Paueko espetxera sartu, eta...	138
<b>juje</b> epailea	<b>Juje</b> eta kartzelero gorrotagarriak umiliatu egin dituelako beren muturren aurrean.	8
<b>kai</b> portua	<b>Kai</b> ondoko ostatu batean jarri nuen zita Joseba Sarrionandiarekin.	99
<b>kalapita</b> eztabaida, matraka	<b>Kalapita</b> bakarrak, euskaldunen artekoak ziren.	40



<b>karkaila</b> barre zantzoa, karkara	Irri <b>karkaila</b> bat atera zitzaidan nahi gabe egoera imajinatzean.	61
<b>kasik</b> ia	Euriteengatik tunelera ura sartzen den arren, aurrera egiten dugu, <b>kasik</b> kalera irtetea lortu arte.	95
<b>kikara</b> katilu txikia	Kafe <b>kikara</b> itzulikatu zuen.	105
<b>kuzkurtu</b> makurtua, gutxitua	Gure baitako askatasun apur <b>kuzkurtua</b> askatasun gehiagoren bila dabil.	113
<b>latza</b> gogorra, zakarra	...injustizia sentsazio <b>latza</b> izan zen, eta negar asko egin nuen.	83
<b>leioaztarra</b> Leioakoa	Protagonistetako batek, Antton Jauregizuria <b>leioaztarrek</b> , bere autobiografia politikoan kontatu zuen xeheki...	10
<b>lekukotza</b> testigantza	Protagonista <b>lekukotzatik</b> abiatu, eta irribarre erdi batekin idatzitakoak.	8
<b>lez</b> bezala	Magoak untxia nondik atera duen deskubritzea <b>lez</b> , amets kolektibo bat lurruntzea litzateke.	100
<b>limurtu</b> konbentzitu	Azkenean, <b>limurtu</b> zuten, aita telefonoz deitu eta lehenbailehen etortzeko eskatzeko.	67
<b>lunetadun</b> antiojoduna, betaurrekoduna	Akaso, barran periodikoa irakurtzen zuen <b>lunetaduna</b> zen.	99
<b>lur jota</b> abailduta, etsita, goibelduta	Ondo katxeatu ostean, inkomunikatuta, ziegetan sartzen gaituzte. Gero, zuzendaria dator ni ikustera. <b>Lur jota dago</b> .	97
<b>mamitu</b> gauzatu	...noiz hasi zen <b>mamitzen</b> bigarren ihesaldi saiakera?	43
<b>mesfidantza</b> deskonfiantza, uzkurtasuna	Hala, elkarrekiko <b>mesfidantza</b> horretatik tratua egin genuen...	14
<b>mimoz</b> txukun eta arretaz	Zulotik sartu, eta teilak ahal bezain txukun ezartzen ditut berriro, nire <b>mimo</b> guztiarekin.	88
<b>mintzo izan</b> mintzatu, berba egin	Begiak batera eta bestera adierazkor mugituz <b>mintzo zen</b> .	12
<b>mirotsita</b> harrituta, mira eginda	Patxik egunero idatzitako papertxoak aurkitu zituen ezkutatuta, eta, haren lanarekin <b>mirotsita</b> , esan zion gorde egingo zuela...	98
<b>mitiko</b> legendakoa	Alta, beste ihesaldi batzuk bilakatu dira <b>mitiko</b> belaunaldi berrientzat...	10
<b>murru</b> horma altua	Handik, gimnasioko espalderra bat eskailera bezala erabiliz kanpoko <b>murrua</b> pasatu nahi zuenean, garitan zaintza egiten ari zen ertzain batek...	139
<b>nerabe</b> gaztetxo (neskatila, mutila)	Garai batean, <b>nerabe</b> nintzela, nire liburu gustukoena zein zen galdetzen zidatenean...	7
<b>olio-lanpara</b> kriseilua	<b>Olio-lanpara</b> bat piztu eta, isilpean, elkarri begiratzen diogu.	88
<b>ordu txikiak</b> ordu bata, ordu biak...	Egun argiz, jendeak tailerretan lan egiten duen bitartean, lo egoten gara, eta 18:30etan hasten gara lanean (...) goizaldeko ordu <b>txikiak</b> arte.	90
<b>oski</b> oinetakoa, zapata	<i>Kanberan debekaturik, <b>oskiak</b> etxean utzirik.</i>	38
<b>ostendu (ostondu)</b> ezkutatu	Bera zen. Horrelako helbide bitxietan <b>ostontzen</b> zen beti. Esaldi bakarra esan zidan, desenkusatzeko: “Zita bat neukan Bernart Etxeparerekin”	99
<b>otordu</b> jateko ordua	<b>Otorduak</b> , hornigaiek iraun duten bitartean, antzekoak dira beti.	90
<b>palmando</b> palmera arbola	“Jardinean bi <b>palmando</b> ” zituen etxe batetik...	36





<b>panoptiko itxura</b> kartzela tankera, zelatatu	Munduak <b>panoptiko</b> itxura izan dezake laster.	112
<b>parafernalía</b> gehiegikeria, tresna... lar	Kapitala eta banku sistema, estatua eta <b>parafernalía</b> guztia da nagusi hirian.	112
<b>pausatu</b> bota, plantatu	Han, emakumeen zaindaria zen andereak bitxi aurkitu zuen gauaren erdian gertatzen zen leku aldaketa hura, eta galderaren bat <b>pausatu</b> zion zuzendariari.	70
<b>perrier</b> ur marka frantses ospetsua	... <b>perrier</b> bat eskatu nion eta nik beste bat edan nuen”, esan du.	70
<b>petril</b> bide bazterreko hesia edo babesa	Baina zoritxarrez, gidari kaxkarra zen, eta 500 metro ingurura <b>petrila</b> jo, hautsi, eta behean zegoen trenbidera erori zen.	57
<b>polimili</b> etakidea, politiko-militarra	Garaitsu hartan izan zen mili eta <b>polimilien</b> arteko haustura, 1974an edo, eta presoek ere beren burua batean edo bestean kokatu behar izan zuten.	41
<b>profitatu</b> aprobetxatu	Poliziak dioenez, astelehenero futboleko jolasten direla <b>profitatuz</b> , helikopteroak zelaian lur hartzea proposatu zioten ETARI.	139
<b>rokanbolesko</b> ausarta eta sinestezina	...esaldi <b>rokanbolesko</b> honen ostean, presoak airatzeko planaren nondik norakoak azaltzen zituen berripaperak.	50
<b>salatari</b> norbait akusatzen duena	Lobo <b>salatari</b> famatua, ihesaldia laguntzeko komandoan ezarri zuten polimiliek.	42
<b>samur</b> erraz	<b>Samur</b> egin du zulo txiki bat.	26
<b>sarekada</b> harrapaketa handia	1927ko maiatzean. FACen kontrako <b>sarekada</b> handi batean, bederatzita lagun harrapatu gintuzten.	40
<b>sasian sartu</b> klandestinitatean sartu	...beste batzuk <b>sasian sartzera</b> behartuak... eta Txomin Ohalgarai eta Ramuntxo Arruiz hilak.	63
<b>sasitar</b> klandestino	Momentua iritsita, Maddik <b>sasitar</b> bihurtu eta borrokan segitzeko berak ere ihes egin nahi zuela esan zienean kideei...	65
<b>sator</b> infiltratua	... <b>satorrak</b> bai, bistan gelditzen dira haien langintzaren frogak.	54
<b>setatu</b> tematu, egoskor jarri	Horrekin <b>setatu</b> zen, ura edan behar zuela, Whiskiak ahoa lehortu ziola eta ura edan ezean zaintzaileek igarri egingo zutela zerbait ez zihoala ondo...	70
<b>so egin</b> begiratu, begitu	Atetik sartzen ziren guztiei, begi klinikoz <b>egiten</b> nien <b>so</b> ; ez bainekien noren zain nengoen.	99
<b>soto</b> upeltegia, upategia /lurpeko gela	Kartzelako <b>sotora</b> iristeko asmoa zuten, eta larunbatez, senideen autobusak etortzen zirela aprobetxatuz, haiekin batera ihes egin.	138
<b>tanpi</b>	Ni sasian nengoen ordurako, eta <b>tanpi!</b> Baina beste kide guztiek fitxatu gabe segitzea oso garrantzitsua zen guretzat.	68
<b>temati</b> egoskorra, burugorria	...eta lehena aspaldi entregatu behar nuen lan bati buruzko galde <b>tematia</b> zenez, bigarrena zabaldu nuen, igorlea nor zen jakin ez arren.	55
<b>tirania</b> inposaketa edo gehiegikeria	Arrazionalki, legalki eta atributu guztiekin, baina aldi berean <b>tirania</b> itzela da.	111
<b>traste</b> lanabesa, tramankulua	Gure galeriako garbiketaren arduradun bezala, tailerretara hurbiltzen naiz, <b>traste</b> pare bat konpontzeko aitzakiarekin.	86
<b>trés bien</b> ederto (frantsesez)	“Gogoratzen dut, erdi gordezka hatz lodia altxatuz, moduluko chef-ak <b>trés bien</b> . Chapeau´ esan zidala, miresmen puntu batekin”	82
<b>ttipi</b> txikerra	Eztanda <b>ttipiak</b> izaten ziren gehienetan, laster piztu eta laster amatatzen zirenak.	63
<b>ukan</b> eduki	Gure artean oso ondo moldatzen ginen, erakunde eta ideia ezberdinak <b>ukan</b> arren.	40
<b>ukatu</b> ezeztatu, ez onartu	Haiek, presoek, beti <b>ukatu</b> izan dituzte poliziak leporatu dizkien hegan egiteko planak.	50



<b>umel</b> hezea	Sakonera honetan, lurra <b>umela</b> da, eta zikin eta bustiak ateratzen gara zulotik.	94
<b>umil</b> apala, xumea	Ismael Berasategi da Joxeanen anaia. Bederatzi haurrideko familia <b>umil</b> batean, bere ondoren datorrena.	76
<b>urde</b> txerria	Gau hartan, <b>urde</b> hiltzea zela eta, festa zegoen Montoriko bi ostatueta.	35
<b>usaian</b> eskuarki, normalean	... <b>usaian</b> , ezerezaren erdian edo ez-lekuetan egoten dira kartzelak...	24
<b>usategi</b> usoen gordelekua	Kartzelako <b>usategia</b> dirudi.	26
<b>utopiko</b> zerbait gauzatu ezina	Amets <b>utopikoena</b> ere egikaritu daitekeela aldarrikatzen duten hamaika frogaren enpiriko.	8
<b>uxatu</b> ihes eragin, aldenarazi	Zalantza guztiak <b>uxatu</b> eta funtzioa ondo bukatzea baino ez dauka buruan.	67
<b>uzkurtu</b> batu, bildu	Haren izena irratian entzun nuenean, errotik <b>uzkurtu</b> zitzaidan gorputza.	46
<b>xamurtu</b> tristetu, hunkitu	Hartaz oroitzean, aurpegia <b>xamurtu</b> zitzaion Pitiri.	107
<b>xehatua</b> birrinduta, sats eginda	...harrapatuta sentitu nintzen, lokatzezko hilobi hartan <b>xehatua</b> ...	17
<b>xeheki</b> zehaztasunez, zertzeladekin	Protagonistetako batek, Antton Jauregizuria leioaztarrak, bere autobiografia politikoan kontatu zuen <b>xeheki</b> ...	10
<b>xurxurlaka</b> ahapeka, isilka	Gaiak ahotsa aldatu balio bezala, <b>xurxurlaka</b> mintzo zen Piti bat-batean.	103
<b>zantzu</b> arrastoa, itxura	... <b>zantzu</b> guztien arabera, preso komunetako baten txibatazoagatik.	135
<b>zapuztu</b> hondatu, baliogabetu	Baina Mikel Lejarzak <b>zapuztu</b> zuen guztia.	42
<b>ziega</b> leotza, zelda	Bere <b>ziegan</b> , dutxa bat hartu du Gatzak eta, ondoren, kolore ezberdineko bi txandal jantzi ditu bata bestearen gainetik.	23
<b>zimendu</b> oinarria	Baina kartzelako murruren <b>zimenduek</b> 2,5 metroko sakonera dute.	93
<b>zur eta lur</b> harrituta, zurtz eginda	Bat-batean, atzeko auto guztietako kideak <b>zur eta lur</b> gelditu ziren. Ezusteko zerbait Filiperen autoan.	69